



EZAUGARRI TEKNIKOAK

Hau izan behar da kontuan babesgailu egokienak aukeratzeko:

- ▶ Gaintentsio iraunkorrek tentsio izendatuaren % 10 gaintitzen dute, hainbat ziklotan edo etengabe. Horien kausak izan ohi dira, oro har, neutro-mozketak gertatzea banaketa-sarean, konexio-arazoak egotea neutroaren eroalean, hargailuaren inpedantzia aldatzea eta/edo karga-kurba aldatzea.
- ▶ Instalazioaren zerbitzuaren jarraitutasuna eta segurtasuna ahalik eta onena izan dadin, gaintentsio iragankorren babesgailuaren mugatzaileak etengailu automatikoaren irteeraren eta etengailu diferentzialerako sarreraren artean konektatuta egon behar du.
- ▶ Jatorri atmosferikoa duten gaintentsioen aurka babesteko gailuak aukeratzean, kontuan izan behar da horien babes-mailak instalatuko diren ekipo eta materialek bulkadan jasan dezaketen tentsioa baino baxuagoa izan behar duela.